

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA  
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL  
KONTSEILUAREN  
AKTA**

**LEHENDAKARITZA, 2014KO APIRILAREN  
9A**

## **BERTARATU DIRENAK**

Iñigo Urkullu Renteria jauna  
LEHENDAKARIA

Arantza Tapia andrea  
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUNEKO SAILBURUA

Ricardo Gatzagaetxebarria jauna  
OGASUN ETA FINANTZETAKO SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna  
OSASUNEKO SAILBURUA

José Luis Bilbao jauna  
BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

Martin Garitano jauna  
GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Javier De Andres jauna  
ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Iñaki Goirizelaia jauna  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Jose M<sup>a</sup> Gibert jauna  
DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Josu Zabala jauna  
MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Fernando Cossío jauna  
IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Alberto García Erauzkin jauna  
INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Javier Ormazabal jauna  
TECNALIA-ko PRESIDENTEA

Jesús M<sup>a</sup> Iriondo jauna  
IK4-ko PRESIDENTEA

Jesús M<sup>a</sup> Ugalde jauna  
JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

José Luis San Pedro jauna  
IBERDROLA-ko PRESIDENTEORDEA

Andrés Arizkorreta jauna  
CAF-eko KONTSEILARI ORDEZKARIA

Antón Pradera jauna  
CIE AUTOMOTIVE-ko PRESIDENTEA

Fernando Quereketa jauna  
IDOM-eko PRESIDENTEA

Jesús Peña Martinez jauna  
LEHENDAKARITZAKO IDAZKARI NAGUSIA

## GAI-ZERRENDA

1. Sartu diren kide berriei ongiatorria ematea eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretua aurkeztea.
2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilu berria eratzea.
3. Kontseiluaren 2013ko abenduaren 4ko bileraren akta irakurtzea, eta hala badagokio, onestea.
4. Espezializazio adimentsuko RIS3 Euskadi estrategiaren agiria aurkeztea.
5. Euskadi 2020 ZTBP berria lantzeko oinarritzko ildo estrategikoak aurkeztea.
6. Eskaerak eta galderak.

- 
1. Sartu diren kide berriei ongiatorria ematea eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretua aurkeztea.

### **1.1.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kide berriei ongiatorria ematea.**

Lehendakariak, bilera hasteko, ongiatorria eman die Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluan sartu diren kide berriei, apirilaren 8ko Jaurlaritzaren Kontseiluan onetsitako dekretu berriaren 4. artikulua araberan.

Honako pertsona berri hauek aurkeztu ditu:

*Jesús M<sup>a</sup> Ugalde*, Jakiundeko, Zientzien Euskal Akademiako presidentea den aldetik.

*Javier Ormazabal*, Tecnaliako presidentea den aldetik.

*Jesús M<sup>a</sup> Iriondo*, IK4ko presidentea den aldetik.

Gainera, ikerketa pribatuaren eragile diren sektore eta enpresen ordezkari gisa sartu diren lau pertsonak aurkeztu ditu.

*José Luis San Pedro*, Iberdrolako presidenteordea. *Andrés Arizkorreta*, CAF-eko Kontseilari ordezkaria. *Antón Pradera*, CIE Automotive-ko presidentea eta *Fernando Querejeta*, Idom-eko presidentea. Lau pertsona horiek guztiak Euskadin energiarekin, fabrikazio aurreratuarekin eta proiektuen ingeniariarekin osorik lotutako esparruetan I+Gri eragiten dioten sektore eta enpresetan barruan daude.

*Kontseilu honek ongiatorria eman die Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretu berrian ezarrita dagoen arabera sartu diren pertsonari.*

### **1.2.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen dekretua aurkeztea.**

Jarraian, Lehendakariak labur azaldu du apirilaren 8an onetsitako dekretuaren, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duenaren edukia.

Aurreko dekretuarekin alderatuta, aldaketa nagusiak funtsean hiru arloekin lotzen dira; hona hemen arlo horiek:

- *Sarrera*. Estatuko eta Europako araudiari buruzko aipamenak eguneratu dira. Halaber, espezializazio adimentsuko estrategiari eta Zientzia eta Teknologiaiko Euskal Sarera egokitzeari buruzko aipamenak ere jasotzen dira.
- *Osaera* (4. artikulua). Kontseilua honela osatu da: azpisistema teknologikoaren ordezkari sartu da, Tecnaliaren eta IK4ren bitartez; azpisistema zientifiko, Jakiunde sartzean; eta enpresa-azpisistema ere bai, I+Gren arloan Herria bultzatzen duten enpresen lau ordezkari sartu baitira.
- *Eginkizunak* (5. artikulua). Kontseiluaren eginkizunak indartu dira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako urte anitzeko plan estrategikoen orientazio estrategikoari, koordinazioari, sustapenari, onespenerari eta ebaluazioari dagokienez.

## **2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilu berriaren osaera**

Aurreko irizpide horiek aplikatu ondoren, eta aipatu diren pertsonak sartu ondoren,

*“Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilu berria formalki eratu da”*.

## **3. Kontseiluaren 2013ko abenduaren 4ko bileraren akta irakurtzea, eta hala badagokio, onestea.**

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak 2013ko abenduaren 4ko bileraren akta onetsi du, inolako oharrik gabe.

## **4. Espezializazio adimentsuko RIS3 Euskadi strategiaren agiria aurkeztea.**

*Arantza Tapia sailburuak* RIS3 Euskadi agiria lantzeko prozesua, metodologia eta ondorioak azaldu ditu. Agiri horretan identifikatzen dira gure herriaren espezializazio adimentsuko lehentasun estrategikoak, 2020a jomuga dela.

*Lantzeko prozesuari* buruz, agirian parte hartu duten Jaurlaritzako sailak zuzenean inplikaturik daude I+G estrategian, eta gaiaren inguruko beste instituzio eta agente publiko nahiz pribatu batzuekin kontrastatu da.

*Metodologiari* dagokionez, abiapuntuko oinarri gisa orain indarrean dagoen ZTBP bera hartu da, eta Europar Batasunak bere “hazkunde adimentsu”ko estrategian ezarritako prozedura metodologikoak hartu dira. Irizpide horien arabera, Europako eskualde baten lehentasun estrategikoen oinarriak honako hauek izango dira:

1. Ezagutu ahal diren indarguneak: enpresa-ehun lehiakorra, berrikuntzak ustiatzeko gai diren sektore eragileekin.
2. Gaitasun zientifiko-tekniko diferentzialak.
3. Erronka sozialei eta merkatuaren eskariei erantzuteko ahalmena.
4. Laguntza-programei laguntza emateko tresna bereziak eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana edukitzea, definitutako estrategia garatzeko.

*RIS3 prozesuan lehentasun bertikalak identifikatzeari dagokionez, ezarritako Europako metodologia eta irizpideak –enpresa gaitasunak, gaitasun zientifiko-teknologikoak eta eskariari erantzuteko gaitasunak- Euskadin aplikatzearen emaitza gisa, hiru lehentasun bertikal handi identifikatu dira: Fabrikazio aurreratua, energia eta Biozientziak-Osasuna binomioa.*

Gainera, Lurraldeari atxikita lurralde horren garapen zientifiko-teknologikorako eta enpresa-garapenerako ahalmena duten jarduera batzuk “*aukera-gune*” gisa identifikatu dira. Zehazki, aukera-gune gisa honako jarduera hauek jasotzen dira: Nekazaritzako elikagaien sektorea. Ekosistemak eta ingurumenaren lehengoratzea. Sormen-, turismo eta kultura-industriak. Hiri garapenarekin eta lurralde plangintzarekin lotutako jarduerak.

Arantza Tapia sailburuak azaldu duenez, Kontseiluari igorritako agiria Kontseiluko kideen eskura dagoen lan zabalago baten sintesia da.

Esan duenez, **RIS3** txostena eta identifikatutako lehentasunak orain indarrean dagoen ZTBP datorren 2015. urtetik aurrera ordeztuko duen “Euskadi 2020 ZTBPrein oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak” izeneko agirian jaso dira.

Jarraian, *Cristina Uriarte* sailburuak egiaztatu duenez, bere sailak RIS3 txostena egin duenean unibertsitateen eta azpisisistema zientifikoko eragileen ekarpenak kontuan hartu ditu. Berretsi duenez, RIS3 txostena ZTBP berriaren zati bat da. ZTBP horretan, adierazi diren lehentasunez gain, beste alderdi batzuk ere jasoko dira, eta hala jasoko da jarraian Lehendakariak aurkeztuko duen ildo estrategikoen eta ekonomikoen agirian.

## **5. Euskadi 2020 ZTBPrein oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak.**

Lehendakariak Kontseiluko kideei “Oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak” izeneko agiria azaldu die. Agiri hori izango da Euskadi 2020 ZTBP berria lantzeko oinarria.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren 2013ko abenduaren 4ko bileran erabaki zenez, aurtengo lehenengo hiruhilekoan Lehendakariak Innobasque-ko Idazkaritza Teknikoaren laguntzarekin koordinatutako lantaldea eratu da, abiapuntuko lehen agiri hau lantzeko. Lantalde horren hasierako gogoetak Zientzia eta Teknologiako Euskal Sistemako gainerako eragileekin alderatuko dira ZTBP berria lantzeko prozesuan. Prozesu hori aurten egingo da, 2014an.

Aurkeztu den agiriaren ildo estrategikoetan zazpi atal biltzen dira:

1. Aurrekariak.
2. Sarrera. Testuingurua, metodologia eta lantzeko prozesua.
3. Egoeraren diagnostikoa.
4. Planaren ildo estrategikoak. Helburuak ezartzea.
5. Lehentasunak hautatzea: RIS3 Euskadiren ondorioak.
6. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemaren gobernantza.
7. Printzipio ekonomiko estrategikoak.

Zazpi atal horiek eratuko dute ZTBP Euskadi 2020 berriaren bizkarrezurra.

Sintesi gisa, ildo estrategikoen agiriak honako hau planteatzen du:

- Bost helburu

- Hiru lehentasun bertikal estrategiko, RIS3 Euskadi txostenean adierazitakoekin bat datozenak, eta
- Zazpi lehentasun horizontal.

Gainera, Zientzia eta Teknologiarako Euskal Sistemaren gobernantzako organo nagusiak jasotzen dira, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua bera buru dela, eta azken buruan, Lehendakaria buru dela, Kontseiluko buru den aldetik.

Azkenik, agirian printzipio ekonomiko batzuk jasotzen dira. Printzipio horiek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plan berria garatzeko esparru gisa erabiliko dira, eta erronka bikoitz honetan laburbiltzen dira: Alde batetik, I+G arloko inbertsioa handitzeko joeran aurrera egitea, eta ezarritako diziplina eta lehentasunetan Europako batezbestekoa mantentzea eta, are gehiago, handitzea ere; eta beste alde batetik, I+G gastuen efikazia eta eraginkortasuna handitzea, hala emaitza hobekak lortuko baitira enpleguan eta enpresa-lehiakortasunean lortu beharreko eraginari dagokionez.

Jarraian, Lehendakariak, RIS3 agiria eta ZTBP Euskadi 2020 berriaren oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoak azaldu ostean, Kontseiluko kideak hitz egitera gonbidatu ditu, bi agiri horiei buruzko gogoetak azal ditzaten.

Bi agiriei buruz lehenengo balorazio positiboa egin da. Aldeko balorazio orokor horren ostean, Kontseiluko kide ia-ia guztiek hitza hartu dute, eta ekarpen interesgarri batzuk egin dituzte. Ekarpen horiek jarraian laburbilduko dira, zortzi ataletan antolatuta:

➤ *Erabilitako adierazle eta kontzeptu batzuk argitzea.*

Azaldu denez, jasotako adierazleetako bat edo beste osatu behar da, edo zehaztasun handiagoz azaldu, bereziki ikertzaile kopuruari buruzkoak eta eragile batzuen espezializazio erlatiboaren indizeari buruzkoak. Horrez gain, berrikuntza prozesuaren helize laukoitza aipatzean “mundu akademikoa zein ezagutzakoa” txertatzea iradokitzen da. Halaber, ikerketa aplikatuaren eta garapen teknologikoaren kontzeptuen arteko muga ahalik eta gehien argitu behar dela azaldu da.

➤ *Nazioartekotzeko estrategia indartzea.* Hainbat hitzalditan aipatu da garrantzitsua dela Zientzia eta Teknologiarako Euskal Sistemaren nazioartekotzea indartzea, eta horretarako hobetu egin behar dela Euskadiren Bruselako Ordezkaritzak mintzatzeko daukan ahalmena, hala Europako proiektu eta funtsetan parte hartzeko aukera indartu ahalko delakoan.

➤ *Unibertsitatearen eta enpresaren arteko hurbilketa bultzatzea*

Enpresaren eta unibertsitatearen artean dagoen tartea murrizteko, garrantzitsua da elkarlaneko programa egonkorak sustatzea, horren barruan zentro teknologikoen lankidetzak dagoela. Enpresek, zentroek eta Unibertsitateak elkarrekin lan egin behar dute, RIS3 estrategian ezarritako lehentasunekin lerrotatuta.

➤ *Zientzia eta Teknologiarako Sistemaren etorkizunarekin batera doan demografia alderdia kontuan hartzea.* Alde horretan, interesgarria litzateke azterketan profesionalen eta ikertzaileen etorkizuneko beharrezko proiektuak txertatzea eta talentua sustatzeko, atxikitze eta erakartzeko politika garatzea, proiektzio demografiko horren arabera.

➤ *Unibertsitateko hezkuntza-sistemaren bikaintasuna indartzea.* Iritzi batzuetan eta besteetan planteatzen da garrantzitsua dela ikertzaile eta profesional berrien “haztegi”tzat hartzea unibertsitate-sistema. Unibertsitate-sistemak bikaintasuna galtzen badu, ezin izango da emaitza onik jaso.

- *Oinarrizko ikerketa indartzea.* Garrantzitsutzat jo da orientatu gabeko oinarrizko ikerketa kontuan hartzea, ezagutza eta deskubrimendu berrien iturria baita. Azpimarratu da beharrezkoa dela bikaintasuneko ikerketari laguntza ematea, sistemaren iraunkortasun ekonomikoa kontuan hartuta.
- *Finantza arloko berrikuntza bultzatzea.* Ereduan teknologikoa ez den berrikuntza kontuan hartzea beharrezkoa dela planteatu da, bereziki finantza-sektoreko berrikuntza, proiektu handien finantzaketan elkarlaneko eta berrikuntzako modu berriak txertatzeko.
- *Erosketa publikoak sustatzea.* Erosketa publikoa enpresa-ikerketan eta prototipoen garapenean laguntza emateko eragile ahalsua da. Arrazoi horregatik ikusi da beharrezkoa dela erosketa publiko berritzaileak aktibatzea, euskal industria-ehunean aukera berriak garatzeko.

*Hitzaldi horien ostean, eta jasotako ekarpenak aztertu ostean, honako erabaki hau hartu da:*

## **Erabakia**

*“Euskadiko espezializazio adimentsuko RIS3 txostena eta oinarrizko ildo estrategikoen eta ekonomikoen agiria onestea, jasotako ekarpenak kontuan hartuta. Bi agiri horiek erreferentzia gisa hartuko dira Euskadi 2020 ZTBP berria lantzeko.*

*ZTBP berria lantzeko prozesuan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileek parte-hartuko dute.*

*Helburua da aurtengo azken hiruhilekoan ZTBP berriaren aurretiazko lehenengo agiri bat edukitzea. Behin betiko onespena 2015eko lehenengo hiruhilekoan emango da.”*

## **6. Eskaerak eta galderak**

### **Aholkularitza Batzorde Zientifikoa**

Eskaeren eta galderen atalean, Lehendakariak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretuaren 9. artikulua arabera, Aholkularitza Batzorde Zientifikoko 10 pertsonako zerrendaren berri eman dio Kontseiluari,

Lehendakariak eskerrak eman ditu Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kideek nahiz Jaurlaritzako beste eragile eta sail batzuek emandako 60tik gorako proposamenengatik. Jasotako proposamen guztiak zuhurtzarik eta konfidentzialtasunik handienarekin baloratu dira.

Hautaketa ez da erraza izan, askotarikoak izan baitira proposatutako pertsonak, bai bikaintasuneko ikerketa-zentroetako buru diren ospe handiko ikertzaileak, bai curriculum ezaguna izan ez arren Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sistema osoaren ikuspegi osagarri eta aberasgarria ekarri ahal duten ikertzaileak.

Lehendakariak azaldu duenez, azken irizpide horri eman zaio lehentasuna.

Ospe handia lortu duten ikertzaileen ikusmoldeak lehentasunezko erreferentzia izaten jarraituko du, ikertzaile horiek Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroetako, Ikerketa Kooperatiboko Zentroetako eta bikaintasuneko beste zentro batzuetako buru gisa betetzen duten zereginaren bitartez. Ikuspegi horretatik, Lehendakariaren ustez, pertsona berriak Aholkularitza Batzordean sartzearen irizpidea lehendik dagoen ikusmoldearen osagarri eta aberasgarria izango da, eta baliagarria izango da Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako euskal sistema osoaren ikuspegia zabaltzeko.

Jarraian, Lehendakariak Aholkularitza Batzorde Zientifikoa eratuko duten hamar pertsonak aipatu ditu, euren ohar biografiko labur batzuk emanda. Pertsona horiei euren izendapenerako proposamenaren berri oraindik eman ez zaienez, emandako informazioa konfidentziasunez kudeatzeko eskatu die Batzordeko kideei Lehendakariak.

### **Erabakia**

*“Kontseilua Aholkularitza Batzorde Zientifikoa osatzeko proposatutako pertsonen jakinen gainean gelditu da, Lehendakariak pertsona horiek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretuaren 9.2 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera izendatu ostean”.*

Aztertzeke beste gairik ez dagoela, bilera 20:15ean amaitu da.

**Jesús Peña Martínez**  
**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL**  
**KONTSEILUKO IDAZKARIA**